



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

BILBOKO  
HEZKUNTZA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
DE BILBAO

# PRACTICUM III

## Musika

**Haur eta Lehen Hezkuntzako Graduak**

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)

Dokumentu hau Practicum batzordeak egin du, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako Practicum arloko lantalde akademikoak hain zuzen ere.

*“Zailak direlako, ez gara gauza asko egitera ausartzen,  
baina zailak dira ez garelako egitera ausartzen”*

**Seneka**

*“Euskararen alde gauza asko egiteko prest gaude.  
Gure esku dago garrantzitsuena: hitz egitea”.*

**Bernardo Atxaga**

## AURKIBIDEA

<b>SARRERA .....</b>	<b>4</b>
<b>1. INFORMAZIOA ETA TESTUINGURUA .....</b>	<b>5</b>
1.1 Practicum IIIan parte hartzen duten pertsonen eginkizunak .....	6
1.2 Kontaktua.....	7
<b>2 PRACTICUMAREN DISEINU OROKORRA .....</b>	<b>8</b>
2.1. Helburu orokorra.....	8
2.2. Gaitasunak.....	8
2.3. Antolaketa .....	9
<b>3. PRACTICUM III: PLANGINTZA ETA GARAPENA .....</b>	<b>10</b>
3.1. Helburua eta gaitasunak.....	10
3.1.1. Helburua .....	10
3.1.2. Gaitasunak .....	11
3.2. Ikasle eta tutoreen zereginak.....	12
3.2.1. Ikasleen zereginak.....	12
3.2.2. Ikastetxeko tutoreen zereginak.....	14
3.2.3. Unibertsitateko tutoreen zereginak .....	14
3.3. Practicum IIIaren garatze faseak.....	15
3.4. Ebaluazioa.....	16
3.4.1. Ikastetxeko tutorearen ebaluazioa.....	16
3.4.2. Unibertsitateko tutorearen ebaluazioa.....	16
3.4.3. Practicum IIIaren kalifikazioa.....	17
<b>4. BIBLIOGRAFIA.....</b>	<b>19</b>
<b>ERANSKINAK.....</b>	<b>24</b>
1. ERANSKINA.....	25
2. ERANSKINA.....	27
3. ERANSKINA.....	29
4. ERANSKINA.....	30
5. ERANSKINA.....	31
6. ERANSKINA.....	32
7. ERANSKINA.....	33
8. ERANSKINA.....	35
9. ERANSKINA.....	38

## SARRERA

Gida hau Lehen Hezkuntza eta Haur Hezkuntza graduetakoko Practicum III-an parte hartuko duten eragileei zuzenduta dago: graduetakoko ikasleak, ikastetxeetako tutore (instruktoe) izango diren irakasleak eta Hezkuntza Fakultateko tutoreak.

Practicum IIIa (PIII) graduko ikasleek burutuko duten azken praktikaldia izango da eta 18 kreditu ditu.

Bilboko Hezkuntza Fakultatean Practicum kudeatzeaz arduratzen diren organoak Lehen Hezkuntza eta Haur Hezkuntza Graduetako Praktika-Dekanordetza eta -Idazkaritza dira eta, beraz, edozein gorabehera edo izapide organo horietara bideratu behar dira.

### *Practicumaren izaera*

Practicumak izaera profesionalizatzailea dauka. Izan ere, eskola-errealitate zehatzetara lotuta dago bertako irakasleen tutoritzapean, ikasleak ikastetxea ezagutu eta hezkuntza-prozezetaz jabetzeko. Gogoetaren bidez, gradu-ikasketetan barneratutako ezagutzek benetako hezkuntza-egoeran txertatzeko aukera eskaintzen dute.

Hortaz, practicumaren ardatz nagusiak ondorengo printzipioak izango dira:

- 1) IZAERA CURRICULARRA. Practicumak “oinarrizko prestakuntza aberastea” du helburu, hau da, ikaskuntza akademikoak (teoriko eta praktikoak) lan-zentroetan egindako ikaskuntzarekin osatzea” (Zabalza, 2006, p. 5).
- 2) IZAERA PROFESIONALIZATZAILEA. Practicum funtsezko prestakuntza- eta heltze- prozesua da, ikasleak profesional on bihurtzeko eskuratu behar dituen gaitasunak garatzeko. Hori dela eta, graduetakoko bigarren ikasturtetik aurrera, ezagutza akademikoen eta esperientzia praktikoaren arteko lotura bermatuko da.
- 3) ERREALITATEARI LOTUTA. Practicum, eskola-testuinguru zehatz baten murgildu eta eredu errealak behatuz, baliabide berrien bilaketa eta hausnarketa abian jartzen dituen ikaskuntza-prozesua da, ikasleak eskuratu beharreko gaitasunak lantzeko.
- 4) INTERDEPENDENTZIAN OINARRITUTA. Practicum partaide guztiak aberasten dituen prozesua da; hau da, LH eta HH graduetakoko ikasleen, unibertsitateko irakasle-tutoreen zein praktika-ikastetxeetako maisu-maistra tutoreen motibazioa eta erantzukizuna bermatzen dituen esperientzia hain zuzen ere.
- 5) BERRIKUNTZAREKIN KONPROMESUA. Practicum aldaketarekin eta hezkuntza-berrikuntzarekin konpromezua du. Halaber, Practicum teknologia berrien erabilera areagotu nahi du, kudeaketa-alorrean halakoak ezarri eta garatzeko.

## 1. INFORMAZIOA ETA TESTUINGURUA

Graduko ikasketak Europako goi-mailako irakaskuntzaren markoan kokatzen dira eta horren arabera, practicumak ondorengo printzipioak ditu euskarri:

1. ECTS KREDITUAK (European Credit Transfer System)
2. CURRICULUM GAITASUNAK. Gradu eta espezializazio-Minorrek izaera bereziko gaitasun profesional propioak dituzte.
3. LANKIDETZA EREDUA. Unibertsitatea eta praktika-ikastetxeen arteko harmonizazioa eta lankidetzaren sendotzea.
4. MUGIKORTASUNA. Ikasleen mugikortasuna bultzatzea, batez ere Estatuko unibertsitate-sare barruan, baina baita atzerriko unibertsitateetan ere (Europar nahiz Europatik kanpo).

Bestalde, Practicum bideratzerakoan bi araudi nagusitan oinarritzen da: batetik, Eusko Jaurlaritzaren 33/2018 Dekretuan, martxoaren 6koa, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza gradu-tako ikasleen praktikak arautzen dituen, eta, bestetik, UPV/EHUren Kudeaketa Akademikoaren Araudian, kudeaketa akademikoaren oinarritzeko alderdiak zehaztu eta antolatzen dituen artikuluan, hain zuzen ere.

Ikasleen praktika garaiko egonaldia ikastetxeetan eta bertako maisu-maestra instruktoeen jarraipena eta tutoretza, UPV-EHU eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko lankidetzaren bidez kudeatzen da (2625/2020 Hezkuntza Agindua, maiatzak 20koa, EHAA).

## 1.1 Practicumean parte hartzen duten pertsonen eginkizunak

EGINKIZUNAK					
Practicumeko Zuzendariordetza	Praktiketako Batzordea	Unibertsitateko tutorea	Ikastetxeko tutorea	Ikasleak	
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Practicumaren antolakuntza eta kudeaketaren ardura:               <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasleak ikastetxe laguntzaileetan adskribatzea.</li> <li>- Practicum irakaskuntza zama Fakultateko sailen artean banatzea</li> <li>- Unibertsitateko tutoreei praktiketako ikasleak esleitzea.</li> <li>- Eskabideak eta erreklamazioak bideratzea.</li> </ul> </li> <li>▪ Practicumaren inguruko informazioa bildu eta zabaltzeko ardura.</li> <li>▪ Praktiken ebaluaketarako ikasleei on-line bidezko inkesta anonimoa egitea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ikasleei zuzendutako prestakuntza saioak antolatzea.</li> <li>▪ Unibertsitateko tutoreei zuzendutako formazio- eta informazio-jarduerak antolatu eta bideratzea.</li> <li>▪ Practicumaren Gidak egin eta eguneratzea.</li> <li>▪ Practicumaren garapenaren jarraipena egitea.</li> <li>▪ Practicumaren ebaluazio sistema doitzea.</li> <li>▪ Zalantzak argitzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Practicum hasieran prestakuntza proiektua hiruen artean adostu eta sinatzea (1. eranskina).</li> </ul>			
		<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ikasleen aseguruia ikastetxeetako irteera edo txangoetan balioztatzeko: Eskolako tutoreak irteera bakoitzaren inguruan informatu behar du unibertsitateko tutorea mail-ez (data eta tokia zehaztuz), eta horrek bueltan oniritzia bidali behar dio, fakultateko practicum teknikariari mezua kopian jarritz, guztia irteera data aurretik. Mezu hauek gorde behar dira, zerbitu gertatzekotan aseguruari ageri bezala aurkezteko.</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Practicumeko plangintza eta zereginak ezagutu eta modu egokian burutzea:               <ul style="list-style-type: none"> <li>- Informazio-jarduera eta mintegietara prestatuta joan eta parte hartzea.</li> <li>- Ikastetxera asistentzia osoa eta puntualtasuna, bertako araudia errespetatuz eta inplikatur.</li> <li>- Memoria osatu eta epe barruan aurkeztea.</li> <li>- Datu pertsonalen konfidentzialtasuna eta babeserako protokoloa betetzea.</li> </ul> </li> <li>▪ Ikastetxeko tutoreekin lankidetzan aritzea.</li> <li>▪ Hezkuntza-komunitateko kide guztiekin harreman adeitsuak izatea.</li> </ul>	
		<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Antolatzen diren informazio eta koordinazio bilera guztietara joatea.</li> <li>▪ Esleitu zaion ikasle-taldearen orientazioa eta jarraipena egiteko ardura.</li> <li>▪ Ikasleen harrera-ordutegia finkatu eta jakitera ematea, ikastetxeetako ordutegiarekin bateragarritasuna zainduz.</li> <li>▪ Esleitutako ikasle-taldeari zuzendutako mintegiak antolatu.</li> <li>▪ Ikastetxeetako tutoreekin harremana eraiki eta lankidetzan aritzea.</li> <li>▪ PIIIaren kasuan, bere ikasleen praktika-zentroak bisitatzea.</li> <li>▪ Ikasleak ebaluatzea eta azken kalifikazioa GAUREn publikatzea.</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Praktiketako ikasleei ikastetxea eta ikastaldearen errealitatea ezagutarazi eta bertan kokatzen laguntzea, eskola bizitzan parte-hartzea harremanak erraztuz.</li> <li>▪ Practicumeko ikasleari ikastetxeko baliabideak eskaintzea, agindu zaizkion prestakuntza-ekintzak burutu ahal izan ditzan.</li> <li>▪ Practicumean zehar ikasleekin batera aritzea eta burutu behar dituzten ekimenak gainbegiratzea, beraien autonomia eta ardura bultzatuz.</li> <li>▪ Practicum prozesua ebaluatu eta ikasleekin konpartitzea, bere indargune eta ahuleziak ezagutu eta hobetze aldera. Fakultateko irakasleari helaraztea.</li> </ul>	

## 1.2 Kontaktua

Edozein zalantza izanez gero Praktiketako Dekanordetzara jo daiteke:

**[Practicumeko Dekanordetza Haur Hezkuntzako eta  
Lehen Hezkuntzako Gradua](#)**

**(Dekanordetzako bulegoa 0S13B)**

**Bilboko Hezkuntza Fakultatea**

**Tel: 946 01 4640**

**Sarriena auzoa z/g 48940 Leioa (Bizkaia)**

**[bhf.practicum.dekanordea@ehu.eus](mailto:bhf.practicum.dekanordea@ehu.eus)**

**Bilboko Hezkuntza Fakultateko Idazkaritza**

**Tel: 946 01 4631**

**Sarriena auzoa z/g 48940 Leioa (Bizkaia)**

**[bhf.practicum@ehu.eus](mailto:bhf.practicum@ehu.eus)**

## 2. PRACTICUMAREN DISEINU OROKORRA

Haur Hezkuntza zein Lehen Hezkuntzan praktiken garrantzia sendotu egin da indarrean dauden ikasketa-planetan. Gradu bietan kreditu kopuru osoa 38 ECTSkoa da eta hiru alditan banatzen da: PI, PII eta PIII, 2., 3. eta 4. mailetan burutzen direnak, hain zuzen ere.

### 2.1. Helburu orokorra

Practicumaren helburua ikasleak irakasle rolean kokatzea eta graduko irakasgaietan ikasi dutena testuinguru errealean kontrastatzeko aukera ematea da. Aldi horretan, funtsezko garrantzia izango du gela barruan parte-hartzeak, errealitate honetako baldintza guztiekin.

### 2.2. Gaitasunak

1. Ikasgela eta honen kudeaketaren inguruan ezagutza praktikoa eskuratzea.
2. Ikas-taldeko interakzio- eta komunikazio-prozesuak ezagutu eta bideratzeko gaitasuna eskuratzea, ikaskuntza- eta bizikidetzagiroa sustatzeko gizarte-trebetasunak garatuz.
3. Ikaskuntza bideratu eta jarraipena egitea, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan beharrezkoak diren teknika eta estrategiak menderatuz.
4. Teoria eta praktika ikas-talde eta ikastetxeko errealitatearekin lotzea.
5. Irakaskuntza-jarduera modu egokian aurrera eramatea, jarduera eta hausnarketa medio.
6. Ikastetxean ezar litezkeen jarduera-eremuak hobetzeko proposamenak egitea.
7. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasle-taldeen interakzio- eta komunikazio-prozesuak doitztea.
8. Hezkuntza-komunitatearen eta honen gizarte testuinguruko alderdiekin lankidetzan aritzeko bideak ezagutzea.



### 2.3. Antolaketa

Practicuma ikasketa prozesu bat da eta gaitasun orokorrak progresiboki garatzen joatea du xede. Ibilbide hau hiru praktikalditan banatzen da graduan zehar, bakoitza bere ebaluaketa propioarekin:

	<b>Gaitasun Orokorrak</b>	<b>Ikasturtea</b>	<b>HAUR H. Kreditu kop.</b>	<b>LEHEN H. Kreditu kop.</b>
<b>PRACTICUM I</b>	Eskola errealitatea ezagutzea	2	8 ECTS	9 ECTS
<b>PRACTICUM II</b>	Irakasle rolaen ezagupena eta praktika, ikasgela zein irakaskuntzaren antolakuntza	3	12 ECTS	11 ECTS
<b>PRACTICUM III</b>	Proposamen didaktikoak diseinatu, gauzatu eta ebaluatzea	4	18 ECTS	18 ECTS

### **3. PRACTICUM III: PLANGINTZA ETA GARAPENA**

Practicuma eskola-errealitatea ezagutu eta bertan aritzeko gaitasunen garatze prozesu bat da. Lehen bi praktikaldietan (PI eta PII) behaketa eta irakasle rola eraikitzen joan dira ikaslearen eguneroko inplikazioa pixkanaka areagotuz. Oraingo honetan alderdi didaktikoari arreta berezia emango zaio, esku-hartzeen lanketarekin eta baita ikastetxeko berrikuntza-proiektuetan erreparatuz.

Trebatze prozesu honetan garrantzitsua izango da ikastetxeko tutorearen ekarpena, ikasleak eskola testuingurua hobeto ezagutzeko eta feedback bidez esku-hartzeen lanketan hobetzen laguntzeko.

Mintegiak, beste ikaskideen esperientziekin aberasteaz gain, esku-hartzeen inguruan unibertsitateko tutorearekin batera hausnarketa kontrastatu, akatsak zuzendu eta proposamenak hobetzeko guneak izango dira.

#### **3.1. Helburua eta Gaitasunak**

##### **3.1.1. Helburua**

Aurreko bi praktikaldietako eskola-errealitatea eta irakasle rola inguruko behaketa eta praktikaz gain, Practicum IIIaren helburua irakaskuntzarako trebetasun didaktikoak garatzea izango da; ikas-egoerak diseinatu, martxan jarri eta ebaluatzea hain zuzen ere.

## 3.1.2. Gaitasunak

Practicum IIIko gaitasunak		Ikaskuntza emaitzak
1	Ikas-taldeko interakzio- eta komunikazio-prozesuak diseinatu eta aurrera eramatea, ikaskuntza- eta bizikidetzaren sustatzeko beharrezko gizarte-trebetasunak abian jarri (LH Gradu T2 eta T7bis zeharkako gaitasunak barne).	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gai da bere uste propioak defendatzeko, iritzi desberdinak egon daitezkeela baloratuz.</li> <li>- Giza eskubideak identifikatu, praktikatu eta defendatzen dituela erakusten du, bizikidetzarako oinarriko tresna bezala erabiliz.</li> <li>- Diziiplina arazoak ebatzi eta gatazka modu baketsuan bideratzen ditu.</li> <li>- Aniztasun egoeretan ikaskuntza-guneak diseinatu eta arautzen ditu, genero berdintasuna eta giza eskubideekiko errespetua kontuan hartuta.</li> </ul>
2	Ikastetxeko hobekuntza eremuetan eta martxan jartzen diren jardueretan parte hartzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hezkuntza komunitateko partaide ezberdinen arteko lankidetzaren esperientziak zein gizarte-ingurunearekin dituztenak identifikatzen ditu.</li> <li>- Hezkuntzak eten gabe hobetzen jarraitu behar duela ulertzen du, aurrerabide zientifiko, pedagogiko eta sozialak kontuan hartuz.</li> <li>- Ezagupenak beste profesional batzuekin partekatzen ditu, hezkuntzaren hobetze aldera.</li> <li>- Arlo baten inguruan zein diziplinaratan talde-lanean aritzen da modu eraginkorrean.</li> <li>- Ikastetxeko bilera eta ekitaldietan parte hartu eta inplikatu da.</li> </ul>
3	Praktika abiapuntu hartuta irakasle zereginaren inguruan hausnarketa burutzea, indarguneak eta gabeziak identifikatzeko eta baita eskola eta hezkuntza sistemaren erronka eta mugak ere. Irakaskuntza-zereginetan parte hartzea eta, praktika oinarri hartuz, jarduera eta hausnarketa bideratzen ikastea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Esku-hartze didaktikoak diseinatzeko, burutzen eta ebaluatzen badaki, baliabide didaktikoak koherentziaz erabiliz.</li> <li>- Haur edo Lehen Hezkuntzako Curriculumeko Oinarriko Konpetentzien garapena bultzatzeko gai da ikasleengan.</li> <li>- Dokumentatu egiten da ikasle beharrezko erantzuna emateko.</li> <li>- Ikastalde zein ikastetxeko egoerak interpretatzeko kontzeptu teoriko eta hezkuntza arloko printzipioekin erlazionatzen ditu.</li> <li>- Haur edo Lehen Hezkuntzako ikastetxeen antolakuntza ezagutzen du eta funtzionamendu aniztasunaz jabetzen da.</li> </ul>
4	Hezkuntza-komunitateko partaide ezberdinekin lankidetzan aritzeko bideak ezagutzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastetxeko eta arloko errealitatea modu kritikoa aztertzen du eta ikuspegi berritzailea duten hobekuntzak proposatzen ditu.</li> <li>- Hezkuntza komunitateko eta gizarte testuinguruko alderdirekin elkarlanean aritzen da.</li> </ul>
5	0-3, 3-6 (HH) eta 6-12 urte (LH) bitarteko ikasle taldeetan interakzio eta komunikazio prozesuak kudeatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bizikidetzaren sustatzen du, ikasgela barruan zein kanpoan.</li> <li>- Ikasgelako interakzioak modu egokian kudeatzea ditu.</li> </ul>

## 3.2. Ikasle eta tutoreen zereginak

### 3.2.1. Ikasleen zereginak

#### 1) *PRESTAKUNTZA PROIEKTUA SINATZEA*

Practicum hasieran fakultateko eta ikastetxeko tutoreekin batera hiru kopia sinatzea, bakoitzak bat izateko (1. eranskina).

#### 2) *FAKULTATEKO JARDUERA ETA MINTEGIETAN PARTE HARTZEA*

**Asistentzia derrigorrezkoa da**, aurrez adostutako zereginak prestatuta eramanez. Mintegietako lanketa dagokion gogoeta-fitxan erregistratuko da (2. eranskina).

#### 3) *ESKU-HARTZE DIDAKTIKOAK DISEINATU, PRAKTIKAN JARRI ETA EBALUATZEA*

Esku hartzeen lanketan ondorengo alderdiak kontuan hartuko dira:

- a) **Hiru esku-hartze** sortu eta abian jartzea.
- b) Testuinguruari egokitzuz eta errealitatearen beharrianen arabera sortuko dira esku-hartzeak, galderok kontuan hartuta:
  - Zertarako? Hau da, zein helburu eta oinarritzko gaitasun landuko diren.
  - Zer?: edukiak.
  - Nola?: metodologia: saioen estruktura-antolaketa, sekuentziazioa, baliabide didaktiko eta materialak.
  - Zer egin, non eta noiz? jarduerak, espazio-denbora antolaketa, baliabide materialak.
  - Nola egin jarraipena? emaitzak aztertu eta prozesuan zehar egokitzapenak egiteko ebaluazio irizpideak.
- c) Lan prozesua: behaketa eta informazioa biltzea, esku-hartzea diseinatu eta praktikan jartzea eta, azkenik, ebaluatu eta ondorioak ateratzea. Esku-hartze fitxan pauso guztiak islatuko dira, ikastetxeko tutorearen oniritziarekin (3. eta 4. Eranskinak).
- d) Esku-hartzeen ezaugarri espezifikoak etapa bakoitzean:

#### ***Lehen Hezkuntzan***

- Esku hartze bakoitzean bost saio abian jarri beharko dira, gutxienez.
- Planteamenduak ikuspegi eta era ezberdinetakoak izan daitezke: jakintza arlo bateko eduki batzuk lantzeko, hainbat arlotako edukiak erlazionatuz, ikastetxean programatutako ikas-egoera edo proiektu batean integratuz...

#### ***Haur Hezkuntzan***

Etapa honetako antolakuntza eta denboraketa berezitasunak kontuan hartuta (egunaren antolaketa, errutinak; edukien lanketarako epe zabalak...) esku-hartzeek epe erdiko planteamendua beharko dute eta, horregatik, hiru astetan zehar burutu beharko dira, gutxienez. Adibidez: ipuina, klasean hortarako erabiltzen ohi den saio kopuru antzekoarekin; txoko baten ardura hartuz; eguneroko errutina baten ardura; proiektu bat edo tailerra interes zentro baten inguruan; arte adierazpena lantzeko esku hartzea... (ikus 3. eranskina).

4) *IKASTETXEKO IRAKASKUNTZA-BERRIKUNTZA PROIEKTUAK EZAGUTU ETA BERTAN PARTE HARTZEA*

Ondorengo zereginak burutu behar dira:

- Proiektua ezagutu eta jarduera zehatzen batean parte hartzea.
- Horren inguruko txosten labur bat egitea dagokion fitxa osatuz (5.eranskina).
- Gainerako ikas-kideei esperientziaren berri ematea mintegian.

Ikastetxe berean aurkitzen diren practicum IIIko ikasleak elkartu eta talde lanean bideratu ditzakete zeregin hauek.

5) *NORBERE JARDUERA EBALUATU ETA HAUSNARTZEA*

Ebaluazio jarduera hauek burutuko ditu:

- a) Esku-hartzeen ebaluazioa praktiketako ikastetxeko tutorearekin, dagokion fitxa osatuz (3 eta 4. Eranskinak).
- b) Berrikuntza proiektuan parte hartzea, dagokion fitxa osatuz (5. Eranskina).

6) *PRAKTIKEN TXOSTENA EGITEA*

Memoriak honako gidoi honi jarraitu beharko dio:

1. Azala (eta honako datu hauek: ikaslearen izen-abizenak eta NANA, maila akademikoa, ikasten duen graduaren izena, espezialitatea, praktikak egin dituen ikastetxea, herria, eta ikastetxeko tutorearen eta unibertsitateko tutorearen izen-abizenak).
2. Aurkibidea.
3. Sarrera, aurkeztuko den praktikaldian kokatuz: datak eta iraupena, bere ezaugarri esanguratsuenak eta ikastetxe testuingurua labur-labur aurkeztuz.
4. Practicumaren helburu pertsonal eta akademikoak.
5. Lanaren enborra:
  - Testuingurua: ikastetxean kokatzeko ezaugarri esanguratsuenak modu laburrean azaldu, eta bereziki irizpide metodologiko esanguratsuenak eta berrikuntza-proiektuak azaldu (zeintzuk diren, proiekturen batean parte hartu ahal izan duen...), ikas-taldearen ezaugarriak.
  - Esku-hartze didaktikoen diseinua, implementazioa eta ebaluazioa.
  - Fakultateko ekitaldi eta mintegien edukiak, hausnarketa, ebaluazioa eta autoebaluazioa.
6. Ondorioak (ik. 6. eranskina):
  - Practicumean ezagutu eta ikasitako alderdi esanguratsuenak laburbildu eta horien inguruko hausnarketa egitea.
  - Praktikaldia ebaluatzea: ea planteatutako helburuak bete diren, ustekabeak...
  - Norbere jarduera aztertzea (parte hartzea, gaitasunak, zailtasunak, mugak..) baliabideak eta ahuleziak identifikatuz, etorkizun profesionalari begira hobetzeko abiapuntu izango direnak.
7. Bibliografia. APA 7. bertsioa
8. Eranskinak.

Txostenak 25 orrialde inguru izango ditu gutxi gorabehera, eranskinak kontuan hartu gabe.

Ikastetxe eta pertsona datuen trataerak indarrean dagoen araudia errespetatu beharko du (7. eranskina).

### 3.2.2. Ikastetxeko tutoreen zereginak

- a) *Prestakuntza proiektua sinatzea. Practicum hasieran ikaslea eta fakultateko tutoreekin batera. Hiru ale, bakoitzak bat izateko (1. eranskina).*
- b) *Practicumaren Araudia eta Practicumaren Gida ezagutzea. Bi agiri horiek BHFko Practicum web orrian eskura daitezke.*
- c) *Ikasleei ikastetxea eta ikas-taldea edo hezkuntza-unitatea azaltzea: ezaugarriak, ikastetxeko Curriculum Proiektua, ikastetxearen antolamendua eta baliabideak....*
- d) *Ikasleak ikastetxean egin behar dituen jardueren jarraipena egitea eta ebaluatzea, behar duen laguntza eta hobetzeko feed-back eskainiz.*
- e) *Ikasleen aseguruak ikastetxeetako irteera edo txangoetan balioztatzeako, unibertsitateko tutoreari emailez horien berri eman behar zaio (data eta tokia zehaztuta) eta beraien oniritzia jaso irteera aurretik.*
- f) *Azken ebaluazioa egitea eta dagokion dokumentua betetzea. (8. eranskina). Dokumentu hau praktikaldia bukatu osteko astean BHFko tutoreari emailez edo helbide honetara postaz bidaliko dio:*

*(Unibertsitateko Tutorearen izena)*

Bilboko Hezkuntza Fakultatea

Facultad de Educación de Bilbao (UPV/EHU)

Sarriena Auzoa, z/g

Leioa 48940 (Bizkaia)

### 3.2.3. Unibertsitateko tutoreen zereginak

- a) *Presta untza proiektua sinatzea. Practicum hasieran ikaslea eta ikastetxeko tutoreekin batera. Hiru ale, bakoitzak bat izateko (1. eranskina).*
- b) *Practicumaren Araudia eta Practicumaren Gida ezagutzea. Bi agiri horiek BHFko Practicum web orrian eskura daitezke.*
- c) *Ikastetxeko tutoreekin harremanetan jarri* (aurkezpen-gutunaren bidez) eta praktikaldian zehar komunikazioa mantentzea (mail, tel., bisita):
  - Praktikei buruzko informazioa helarazteko: gidaren berri eman eta praktiken helburuak eta ikasleen zereginak azaltzea.
  - Ikaslearen jarraipena partekatzeko.
- d) *4 mintegi planifikatu eta bideratzea* gutxienez esleitutako ikasleekin:
  - Lehenengoa: informazio-mintegia, eskolako egonaldia hasi aurretik, Practicumean burutu beharreko lanen berri emateko.
  - Ondorengo 2 mintegiak: ikastetxeko egonaldian zehar, zereginen inguruan orientazioa eman eta jarraipena egiteko, zailtasunak eta arazoak aztertu eta bideratzen laguntzeko, kideen artean esperientziak partekatu eta kontrastatzeko...
  - Azken mintegia: ikastetxeko egonaldi bukaeran, prozesua bere osotasunean aztertu eta hausnarketa egiteko, ebaluazioa eta azken zalantzak argitzeko.

Mintegietan lantzekoak:

- Ikasleek egindako jarduera didaktikoak aztertzea eta kideen jarduerekin kontrastatzea. Beharrezko baimenak badaude bideo-grabaketak ere erabil daitezke (Kontsultatu 7. Eranskina).
- Ikasleen esperientziak eta ikuspuntuak trukaketak.
- Partekatzen diren ikastetxe errealitate ezberdinen arteko konparaketa: testuinguruak, funtzionamendua, planteamendu didaktikoak, egoerak...
- Practicumeko ikasketa-prozesu beraren inguruan hausnartzea.
- Zalantzak argitzea.
- Praktiketako Memoria (txostena) egiteko, ikasleei jarraibideak ematea (kontsultatu 6. eranskina).

e) **Praktiketako ikastetxera bisita egitea.**

f) **Azken kalifikazioak argitaratu** eta ikasleen espedientera pasatzea ezarritako epean, ikastetxeko tutoreen ebaluaketak jaso (8. eranskina) eta norbere ebaluaketekin (9. eranskina) bateratu ostean.

g) **Ikasleen aseguruak ikastetxeetako irteera edo txangoetan balioztatze**ko, eskolako tutoreengandik horien berri mail-ez jaso (data eta tokia zehaztuta) eta jarraian oniritziarekin erantzun behar zaie, fakultateko practicum teknikariari mezua kopian jarritz, guztia irteera data aurretik. Mezu hauek gorde behar dira, zerbait gertatzen bada ageri bezala aurkezteko.

### 3.3. Practicum IIIaren garatze faseak

Practicum IIIaren helburu orokorra lortzeko, practicum ibilbidea hiru fasetan antolatzen da: *Hasierako Fasea* (practicumean kokatzeko), *Jarraipen Fasea* (murgilketa eta lanketa fasea) eta *Azken Fasea* (practicumean landutakoa laburbildu, azken hausnarketa burutu eta ondorioak ateratzea)

#### *Hasierako Fasea*

Practicumean kokatu eta hasiera emateko jarduerak honakoak dira:

- *Lehen mintegia*: unibertsitateko tutore eta ikasleen artean, ikastetxera joan aurretik horretarako ezarritako egutegiaren arabera, Practicum IIIa aurkeztu eta Gida-ren inguruko argibideak emateko.
- *Unibertsitateko tutorea ikastetxeko tutorearekin kontaktuan jarri informatzeko*:
  - Tutore eginkizuna azaltzea.
  - Eskolan beraien arreta behar duten ikasleen zereginen berri ematea (esku-hartze didaktikoak diseinatu eta praktikara eramatea, ikastetxeko berrikuntza proiektuak ezagutu eta horietan parte-hartzea).
  - Ebaluaketan izango duten parte hartzea azaldu eta horretarako erabiliko diren kalifikazio-irizpideen berri ematea.
  - Practicumak dirauen bitartean elkarrekin komunikatzeko bideak eraikitzea.

#### *Jarraipen-Fasea*

Eskola errealitatean murgilketa eta lanketa garaiak honako hauek biltzen ditu:

- *Ikasleen jardunaldi osoko egonaldia ikastetxean* 11-12 astez gutxi gora behera.
- *Bi mintegi* gutxienez praktiken jarraipenerako, unibertsitateko tutoreak talde lanean aritzeko planifikatuko dituenak (helburu, lanketa eta egutegia).
- *Unibertsitateko tutorearen bisita ikastetxera*, praktiken jarraipena egin eta eskola-errealitatearekin zuzeneko kontaktua eraiki eta bertako tutorearekin harremana sendotzeko.

### *Azken Fasea*

Landutakoa laburbilduz, azken hausnarketa burutu eta ebaluaketa garaiak honako jarduerak biltzen ditu:

- *Azken mintegia.*
- *Ikasleak praktiketako txostena* bukatu eta entregatzea.
- *Ikastetxeko tutoreak ebaluazio-galdetegia* osatu eta unibertsitateko tutoreari bidaltzea.
- *Unibertsitateko irakasleak ebaluazioa* osatu eta kalifikazioa GAUREn publikatzea.

## **3.4. Ebaluazioa**

Ebaluazioa jarraia izango da praktikaldi osoan zehar eta Hezkuntza fakultateko tutorea zein eskolako tutorearen esku egongo da.

Fakultateko tutoreak ebaluatzerakoan nagusiki kontuan hartuko dituen informazio iturriak mintegiak eta ikaslearen txostena izango dira. Ikastetxeko tutorearen kasuan ikaslearen zuzeneko behaketa oinarrituko da.

Fakultateko tutorea, ikastetxeetako tutoreen ebaluaketak jaso eta bere ebaluaketekin elkartuz, azken nota zehaztu, argitaratu eta espedientera pasatzearen arduraduna da.

### **3.4.1. Ikastetxeko tutorearen ebaluazioa**

Honako alderdi hauek hartuko ditu kontuan:

- Irakasle eginkizunak: ikaskuntza egoerak sortzeko gaitasuna; ikasgelako materiala eta baliabideak modu egokian erabiltzea; ordena eta arreta mantentzeko gaitasuna; ikasleekin eta ikastetxeko tutorearekin interakzio-maila; gatazka edo ustekabeko egoeren aurrean erreakzionatzeko gaitasuna, eta abar.
- Klaseen prestaketa: proposamenen oinarri teorikoa; eduki didaktikoak ordenatzeko gaitasuna; jarduerak planifikatzeko gaitasuna; eskolako programazioarekin lotura eta bertako baliabideak modu egokian erabiltzeko gaitasuna.
- Jarrera eta ezaugarri pertsonal eta profesionalak: norbere praktikaren inguruan hausnartzeko gaitasuna; norbere burua ebaluatzerakoan autokritikoa izateko gaitasuna, burututako esku-hartzeetan esaterako; puntualtasuna eta asistentzia; interesa eta motibazioa; ikasteko grina; ikasleekiko enpatia; jarrera kolaboratzailea ikastetxeko irakaslearekin; etab.

Ebaluazio-orria gida honen 7. eranskinean aurki daiteke. Irakasleak ikastetxeko egonaldia bukatu bezain laster bertako tutoreak osatu eta unibertsitateko tutoreari helaraziko dio.

### **3.4.2. Unibertsitateko tutorearen ebaluazioa**

#### *Mintegien ebaluazioa*

Mintegietan eta antola daitezkeen bestelako prestakuntza ekitaldietan ikasleen parte hartzearen kalitatea kontuan hartuko da: ahozko komunikazio gaitasuna, elkarriketetan ekarpenak, beraien esperientziaren inguruko hausnarketak, erakusten duten ikaskuntza- eta gogoeta-maila, kideekin lankidetzan jarduteko gaitasuna, adierazitako inplikazio-maila...



*Memoriaren ebaluazioa*

Irizpideak:

1. Idatzizko komunikazioa menperatzea; hau da, ideiak adierazteko argitasuna eta koherentzia, diskurtsoaren egitura orokorra eta antolakuntza, zuzentasun gramatikala, lexikoa espezialitate profesionalera egokitzen ote den, eta zuzentasun ortografikoa.
2. Irakaskuntza-jarduera garatzeko eta bertan esku hartzeko proposatu diren helburuak justifikatzea.
3. Irakaskuntza praktikaren gogoeta-prozesuan eta ondorioetan adierazitako ekina eta sakontasuna.
4. Praktika-aldian burututako lanen inguruan aurkeztutako ebidentzia edo frogen aukeraketa eta azalpenaren egokitasuna.
5. Egindako ahalegina, eta eskuratutako emaitzak eta ezagutzak konpetentzietan: komunikazio konpetentzia, konpetentzia pedagogiko eta profesionala, konpetentzia didaktiko-diziplinarra, eta kultur-artekoa.

(Begiratu errubrika 9. eranskinean)

Gaitasun komunikatiboak, zeharkako gaitasuna denez, unibertsitateko tutorearen ebaluaketan %10 suposatuko du azken kalifikazioan, beti ere Practicuma gainditzeko ikasleak maila nahikoa erakusten badu.

Hortaz, hizkuntzaren ahozko eta idatzizko erabilera zuzena ezinbestekoa izango da eta **amaierako memoria (txostena) ez da gaindituko, ulermen eta adierazpen linguistiko konpetentzia nahikoa ez bada erakusten**. Hurrengo aspektuak hartuko dira kontutan: koherentzia, kohesioa, egokitasuna eta zuzentasuna; diskurtsoaren ulergarritasuna; hiztegia eta ortografia; ergatiboa eta komunztadura.

**Plagioak memoriaren suspentsoa suposatuko du eta, ondorioz, practicuma ez da gaindituko.**

Ezin da beste batek egindako obraren kopia edo imitazioa norberak egin balitz bezala aurkeztu. Ikasleak zitazio arauak ezagutu eta erabili beharko ditu (APA 7). Plagioa egin dela susmatzen bada [UPV/EHUko Etika Akademiko Protokoloa](#) beteko da.

### 3.4.3. Practicum IIIaren kalifikazioa

Ebaluazioari dagokionez, Practicum IIIaren eragile ebaluatzaile, baliabide eta ehunekoak hauek izangodira:

ERAGILE EBALUATZAILEA	EBALUAZIO TRESNAK	EMANDAKO EHUNEKOA
<b>Ikastetxeko tutorea</b>	Ebaluazio-txostena (8. eranskina)	<b>% 30</b>
<b>Unibertsitateko tutorea</b>	Memoria ebaluatzeko errubrika (9. eranskina)	<b>%70</b>
		<b>% 100</b>

*Ebaluaketan zuzeneko eragina daukaten alderdiak:*

- Unibertsitateko tutorearen ebaluaketan komunikazio-kompetentziak kalifikazioaren %10 suposatzen du eta maila nahikorik izan ezean practicuma suspendituko da.
- Mintegi edo planteak daitezkeen bestelako prestakuntza-jardueretara ez joateak eragin zuzena izango du azken kalifikazioan, huts-egite bakoitzeko puntu bat gutxiago suposatuz.
- Irakasgaia gainditu ahal izateko ezinbestekoa izango da atal guztiak gainditzea, ikastetxeko tutorearena zein unibertsitateko tutorearen alderdi guztiak.

*Ondorengo kasuetan “GUTXIEGI” kalifikazioa jarriko da:*

- Praktika-garaian ikastetxera justifikatu gabeko bi hutsegite baditu ikasleak, irakasgaia suspendituko da, eta beraz, praktikak osorik errepikatu beharko dira.
- Ikastetxeko irakasle-tutorearen kalifikazioa 5en azpitik badago, “gutxiegi” kalifikazioa jarriko da irakasgaian eta, beraz, praktikak berriz ere osorik burutu beharko dira.
- Unibertsitateko tutorearen kalifikazioa 5en azpitik badago, ez da irakasgaia gaindituko. Ikasleak ezohiko deialdian beste memoria bat (txostena) egin eta aurkeztu beharko du. Bigarren honetan, irakasgaia gainditzeko ez badu, praktikak berriz bere osotasunean egin beharko ditu.
- Ikasleak hizkuntza maila eskasa erabiltzen badu “gutxiegi” kalifikazioa jarriko zaio eta ezohiko deialdian memoria berri bat aurkeztu beharko du.

*Ondorengo kasuetan “EZAURKEZTUA” kalifikazioa jarriko da:*

- Irakasgaian matrikulatutako ikaslea Practicum Zuzendariordetzarekin edo unibertsitateko tutorearekin harremanetan jartzen ez denean.
- Irakasgaian matrikulatutako ikaslea Praktiketako Zuzendariordetzarekin adostu gabeko ikastetxeren batean praktiketara aritu bada, praktika horiek ez dute baliorik izango eta, beraz, “ez aurkeztutzat” jarriko zaio ohiko eta ezohiko deialdietan.
- Memoria ez bada ezarritako epe barruan aurkezten, “ez aurkeztua” kalifikazioa jarriko da ohiko deialdian. Kasu honetan, ikasleak ezohiko deialdian memoria aurkezteko aukera izango du. Bigarren deialdi honetan ere garaiz aurkezten ez badu praktikak berriz bere osotasunean egin beharko ditu.

## **IKASLEEI PRAKTIKA-ALDIKO MEMORIAK BUELTATZEA**

Praktiketako lanak eta memoriak eta horiei erantsitako materiala hurrengo ikasturtera arte gordeko ditu irakasleak. Epe hori igarota, itzulketa ez bada eskatu, birziklatu egingo da.

Memoriak eta lanak osorik edo zati batean argitaratzeko, kopiatzeko, edo beste edozertan erabiltzeko, ezinbestekoa izango da egilearen edo egileen berriazko adostasuna (*EHUko kudeaketa-araudia, 49. artikulua*).

## 4. BIBLIOGRAFIA

### WEBGRAFIA OROKORRA

#### LOMLOE

[Decreto Legislativo 2/2023, de 21 de septiembre, por el que se aprueba el texto refundido de la ley de la Escuela Pública Vasca](#)

[77/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntza curriculuma zehaztu eta Euskal autonomia Erkidegoan ezartzekoa](#)

[Hezkuntza Curriculum gunea](#)

<http://www.berritzeguneak.net/>

<http://www.educaplay.com>

<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>

<https://ikasgunea.euskadi.eus/es/web/bizikasi>

<https://www.eleanitz.org/>

### BIBLIOGRAFIA OROKORRA

33/2018 DEKRETUA, martxoaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan irakasle izateko gaitzen duten unibertsitate-ikasketen praktikumari buruzkoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria.. Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 23an, zb. 59, 1-14 orr.

Bilboko Hezkuntza Fakultatea. (2018). Praktikak. Bilboko Hezkuntza Fakultateko araudia. Bilboko Hezkuntza Fakultatea: Leioa.  
[https://www.ehu.es/documents/2955630/8871586/PRAKTIKAK+Araudia\\_eusk.pdf/83509d08-6758-15fa-159c-5751798a63b7](https://www.ehu.es/documents/2955630/8871586/PRAKTIKAK+Araudia_eusk.pdf/83509d08-6758-15fa-159c-5751798a63b7) tik hartuta.

Eusko Jaurlaritza. (d.g). HEZIBERRI2020. Marco del modelo educativo pedagógico. Eusko Jaurlaritza :Vitoria-Gasteiz.  
[http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberrri\\_2020/es\\_heziberr/adjuntos/Heziberrri\\_2020\\_c.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberrri_2020/es_heziberr/adjuntos/Heziberrri_2020_c.pdf) tik hartuta.

### IKASLERIAREN BIBLIOGRAFIA ESPEZIFIKOA

AA. VV. (2013). *Mejora de la práctica docente. Una experiencia de autoevaluación*. Vitoria-Gasteiz: Gasteiz: Departamento de Educación Política Lingüística y Cultura. Gobierno Vasco.

Agelet, J., Albericio, J., Aragües, A., eta beste batzuk. (2001). *Estrategias organizativas en el aula. Propuestas para atender la diversidad*. Graó.

Aretxaga, L. (Koord.). (2013). Hezkuntza orientabideak. Adimen gaitasun handiko ikasleak. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.  
